


Año LI. urtea

127 - 2019

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Denboratik kausara:
-*nez gero* kausazko
lokailuaren garapenaz**

José Ignacio HUALDE, Manuel PÉREZ SILDANYA

Denboratik kausara: *-nez gero* kausazko lokailuaren garapenaz

Del tiempo a la causa: Desarrollo del subordinante vasco *-nez gero*

From time to cause: The development of the Basque connector *-nez gero*

José Ignacio HUALDE
University of Illinois at Urbana-Champaign
jihualde@illinois.edu

Manuel PÉREZ SALDANYA
Universitat de València
Manuel.Perez-Saldanya@uv.es

Jasotze data: 2018/03/08. Behin-behineko onartze data: 2018/05/16. Behin betiko onartze data: 2018/06/05.

LABURPENA

Lan honetan *-nez gero* atzizki multzoaren garapena dugu aztergai, lehen testuetatik hasi eta gaurdaino. Denbora lokailuetatik sortu diren beste kausazko lokailu asko bezala, *-nez gero* batez ere mintza-ekintzak eta antzekoak justifikatzeko erabiltzen da. Hala ere, kausa neutroagoak adierazteko ere erabiltzen da. Gaztelaniaz ez bezala, menpeko perpausaren kokagunea ez da aldatu azken mendeotan eta funtzio informatiboan ere ez dugu aldakuntza handirik ikusten. Sumatzen dugun garapen nagusia da beharbada edukizko kausazko neutroetan maizago erabiltzeko joera. Oro har, *-nez gero* kausazko menderagailuak, gazt. *ya que*-rekin baino, antz handiagoa du fr. *puisque* eta ing. *since* lokailuekin.

Gako hitzak: kausazko perpausak; gramatikalizazioa; berranalisia; menderakuntza; *gero*.

RESUMEN

Examinamos la evolución de *-nez gero* como nexo causal. Como es esperable en las causales de origen temporal, las cláusulas con *-nez gero* se usan sobre todo en causales que justifican actos de habla o similares. Sin embargo, también las encontramos en causales más neutras. La principal evolución observable en estos cinco siglos ha sido quizá un uso más frecuente en este segundo tipo de causales. La conjunción vasca se asemeja más a la conjunción *puisque* del francés o a *since* del inglés que a las causales castellanas de origen temporal. Al contrario que en castellano, no hay una tendencia diacrónica a cambiar de función informativa y de posición en relación a la cláusula principal.

Palabras clave: oraciones causales; gramaticalización; reanálisis; subordinación; *gero*.

ABSTRACT

We examine the evolution of *-nez gero* as a causal connector. As expected of causal connectors of temporal origin, *-nez gero* clauses are mostly used to justify speech acts and similar situations. However, they are also used in more neutral thematic causal clauses. The most noticeable evolution in the last five centuries has been an increase in the frequency of its use in the latter type of causal clauses. Also contrary to the evolution of *ya que* in Spanish, we do not observe any diachronic tendency for the subordinate clause to move from the left to the right of the main clause or, regarding informative function, from non-assertive to assertive. In all this, the Basque subordinator resembles more Fr *puisque* and Eng *since* than the Spanish causal conjunctions of temporal origin.

Keywords: causal clauses; grammaticalization; reanalysis; subordination; *gero*.

1. SARRERA. 2. KAUSAZKO PERPAUSEN TIPOLOGIA. 3. GERO HITZAREN ERABILERA ETA BILAKAERA. 4. DENBORATIK BALDINTZARA. 5. DENBORATIK KAUSARAKO BERRINTERPRETAZIOAREN TESTUINGURUAK. 6. INFORMAZIO MOTA ETA 'DENBORA > KAUSA' BILAKAERA. 7. KAUSAZKO PERPAUSEN KOKAGUNEA HISTORIAN ZEHAR GAZTELANIAZ ETA KATALANEZ. 8. GERO-DUN KAUSAZKO PERPAUSEN KOKAPENA HISTORIAN ZEHAR. 9. *-N(EZ) GERO* ATZIZKI MULTZOAREN BIDEZ ERATUTAKO KAUSAZKO PERPAUSEN ERABILERA. 10. ONDORIOAK. 11. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Denbora adberbio eta lokailuak, bereziki 'gero, beranduago, ondoren' esanahia dutenak, kausazko menderagailuen iturri ezaguna dira munduko hizkuntzetan. Gramatikalizazioaren bidez adberbio horiek denbora adieraztetik kausa, baldintza edo kontzesioa adieraztera iragaten dira diakronikoki sarritan. Hain zuzen, denborazko egiturak kausazkoen iturri diakronikorik oparoena dira Europako hizkuntzetan (Kortmann, 1997, 197. orr.). Hori da, noski, euskarazko *gero* adberbioarekin gertatu dena, eta antzeko bilakaerak ditugu beste hizkuntza askotan. Ingelesezt, adibide, *since* hitzak denbora adierazten du (1a)n eta kausa (1b)n:

- (1) *Since* ingelesez
- a. Denbora: I haven't talked to them since they moved to Peoria
 - b. Kausa: He must be a Republican, since he voted for Trump

Adberbioa edo preposizioa denean, *since* hitzak denborazko balioa du: *ever since*; *since February*. Kasu honetan ez da batere zaila ikustea aldakuntza semantikoa nola gertatu zen. Hain zuzen (1a)ko abidideak ere, denborazko irakurketaz gain ('Peoriara joan zirenetik') kausazko irakurketa ere badu ('Peoriara joan zirelako'). Inferentzia famatu bat dugu hemen; hots: *post hoc, ergo propter hoc*. Lehen gertatzen dena ondorengoaren zergati edo kausatzat hartzen da (ikus Geis & Zwicky, 1971; Levinson, 1995; Traugott & Dasher, 2002, 16-17, 80. orr.).

Latinaren *post* 'ondoren' hitzak ere kausazko balioa garatu zuen hizkuntza erro-manikoetan: adib. gazt. *Pues lo sabes, dimelo*; fr. *Puisque vous le savez, dites-moi*,

baina bilakaera aurrerago joan da, lokailuak denborazko interpretazioa galdu baitu egitura horietan, ingelesezko *since* lokailuak ez bezala (Baños, 2014, 72. orr.; Herman, 1963, 202-204. orr., Herrero, 2005, 341-344. orr.; Meyer-Lübke, 1899, 612. orr.; Pérez Saldanya, 2014, 3540-3542. orr.). Antzeko eboluzio bat dugu gaztelaniaz *ya que* lokailuarekin eratutako egituretan ere (Herrero, 2006; Pérez Saldanya, 2014, 3557-3563. orr.).

Artikulu honetan euskarazko *gero* hitzaren –edo zehazkiago *-n(ez) gero* egituraren– bilakaera diakronikoa aztertu nahi dugu, alboko hizkuntza erromanikoekin konparatuz. Dena den, esan behar da *gero* ez dela kausarako bilakaera izan duen denbora adberbio bakarra euskaraz, *ordutik* adberbioarekin antzeko eboluzio bat baitugu, ‘ondorioz’ interpretazioa hartuz, (ikus Villasante, 1986, 264. orr., eta OEH s.v.). OEHk, besteak beste, honako adibidea dakar:

- (2) Sinhesten diren egien arabera ez bizitzea da fedea bera desohoretzea ta laidoztatzea; eta *ordutik* Jaunaren dohain balios hau bera gure kaltetan liteke. (M. Duhalde, *Meditazioneak gei premiatsuenen artean*, 1809, 112. orr.).

Artikulu honela dago antolatuta: 2. atalean kausazko perpausen tipologia azaltzen da laburki. 3. atalean *gero* menderagailuaren hiru erabilera nagusiak kontsideratzen ditugu: denbora, baldintza eta kausa. Baldintzazko erabilera ez da artikulua gai nagusia, baina 4. atalean bere sorrera oso laburki miatzen dugu, baldintza eta kausa nola erlazionatzen diren ikertuz. 5. atalean, denboratik kausara daraman bidea dugu aztergai, gramatikalizazio bide honetaz esan dena laburtuz. 6. atalean erakusten dugu gramatikalizazio bidean mendeko perpausak adierazten duen informazio mota garrantzitsua dela kausazko inferentzia eragiteko. Kausazko inferentzia sortzen da mendeko perpausa perpaus nagusiaren ezker aldean dagoenean, baina hurrenkera aldatu daiteke inferentzia gramatikalizatu ondoren. Hori da gaztelaniaz eta katalanez gertatu dena *pues/puix* eta *ya quelja que* lokailuekin, 7. atalean erakusten dugun bezala, beste bi artikuluren emaitzak laburbilduz. Gure galdera zen ea euskal lokailuak ere antzeko bilakaera diakroniko bat erakusten duen. Gure ikerketaren emaitzak 8. atalean erakusten ditugu. 9. atalean aztertzen dugu zein neurritan *-nez gero* euskal lokailua gazt. *ya que* lokailutik aldetzen den adieratzen dituen esanahietan. Azkenik, 10. atalean lanaren ondorioak laburbiltzen ditugu.

2. KAUSAZKO PERPAUSEN TIPOLOGIA

Kausazko perpausak tipologia ñabarra dute. Irizpide sintaktikoak, semantikoak zein pragmatikoak erabiliz sailkatu daitezke.

Sintaxiaren ikuspegitik, kausazkoak barnekoak edo kanpokoak izan daitezke (EGLU VI, 167-169. orr.). Barnekoak predikatuaren adjunktoak dira. Aditz nagusiaren aurrean (3a) zein atzean (3b) koka daitezke (EGLU VI, 171-175. orr.; Artiagoitia, 2003, 714-715. orr.):

- (3) Barneko kausazko perpausak
- a. *Nekatuta zegoelako* joan zen etxera.
 - b. Joan zen etxera *nekatuta zegoelako*.

Barneko kausazkoak «kausal beteak» dira eta perpaus nagusiaren proposizioaren arrazoi edo motiboa adierazten dute (EGLU VI, 161. orr.). Semantikoki, edukizko kausalak dira beti. Informazioaren egituraren ikuspegitik errematikoak dira eta informazio berria ematen dute; hau da, asertziozkoak dira. Horregatik «zergatik» galderari erantzuna emateko erabiltzen dira (adib. *Zergatik joan zen etxera?*).

Kanpoko kausazkoek, aldiz, azalpen bat eskaintzen dute. Perpausaren adjuntoak dira eta intonazioaren bidez bereizten dira perpaus nagusitik. Ezker aldeko (4a) zein eskuin aldeko periferian (4b) koka daitezke:

- (4) Kanpoko kausazko perpausen kokagunea
- a. *Hemengoa ez naizenez, ez dut ezer esan nahi.*
 - b. *Ez dut ezer esan nahi, ez bainaiz hemengoa.*

Barnekoak baino heterogeneoagoak dira. Batzuetan perpaus nagusiaren edukia justifikatzen dute (edukizko kausazkoak), (5a). Beste batzuetan mintza-ekintza azaltzen dute (mintza-ekintzazko kausazkoak), (5b). Azkenik, hitzunaren arrazonamendua azal dezakete (epistemikoak), (5c):

- (5) Kanpoko kausazko perpausak (asertziozkoak)
- a. Hainbeste jendearen artean ez zuen agertokia ikusi, *oso gizon txikia baitzen.* (Edukizkoa)
 - b. Goazen, *berandu da eta.* (Mintza-ekintzazkoa)
 - c. Ez dago etxean, *ez baitu telefonoa hartzen.* (Epistemikoa)

Egitura informatiboari dagokionez, kanpoko kausazkoek informazio berria ematen dute kasu batzuetan (asertziozkoak), (5). Baina beste kasu batzuetan ematen duten informazioa ezaguna da solaskideentzat, eta egiaztat onartuta (ez-asertziozkoak), (6)¹. Kanpoko asertziozko kausalak, eskuin periferian kokatzen dira. Ez-asertziozkoak, aldiz, ezker periferian kokatu ohi dira (6a-b), baina eskuin aldean ere ager daitezke (6c):

- (6) Kanpoko kausazkoa perpausak (Ez-asertziozkoak)
- a. *Gaixorik zegoenez, alde egin zuen.* (Edukizkoa)
 - b. *Hain kezkatuta zaudenez gero, zeuk egin ezazu!* (Mintza-ekintzazkoa)
 - c. *Zeuk egin ezazu, hain kezkatuta zaudenez gero!* (Mintza-ekintzazkoa)

1 Asertziozko perpausak adierazten duten informazioa baieztatzen edo deklaritzen dute. Asertzioaren kontra-ko auresuposizioa edo ez-asertzioa da («dakigunez, gauza jakina denez...»). Errematiko (informazio berria) vs tematiko (informazio ezaguna) oposaketa antzekoa da.

Laburpen gisa, bereizi ditugun kausazko perpaus mota desberdinak zerrendatzen ditugu 1. taulan, mota bakoitza erakusteko eman ditugun adibideekin.

1. taula. Kausazko perpausen sailkapena

Klasea	Azpiklasea		Adibideak
Barnekoa (kausal betea)	(asertziozkoa)	(edukizkoa)	(3a), (3b)
Kanpokoa (azalpenezko kausala)	asertziozkoa	edukizkoa	(4b), (5a)
		mintza-ekintzazkoa	(5b)
		epistemikoa	(5c)
	ez-asertziozkoa	edukizkoa	(4a), (6a)
		mintza-ekintzazkoa	(6b), (6c)

3. GERO HITZAREN ERABILERA ETA BILAKAERA

Euskaraz, *gero* denbora adberbio bat da funtsean, «*noiz?*» galderari erantzuna ematen diona (adib. *gero egingo dugu*). Hala ere, *gero* hitzak beste erabilera batzuk ere garatu ditu. Alde batetik, izena izan daiteke, nominalizazioa deitutako prozesuaren bidez (adib. *geroak esango digu*). Bestalde, menderagailua ere izan daiteke, esaldi jokatu zein jokatugabeekin, ondoko adibideetan bezala:

- (7) *Gero* menderagailuaren erabilerak
- Denbora: afaldu eta gero egingo dugu ~ afalduta gero
 - Baldintza: nahi izanez gero, beste bat har dezakezu
 - Kausa: beste bat nahi duzunez gero, emango dizut

(7a)ko egituraren bilakaera Krajewskak (2013, 16. orr.) azaldu du. Lehen pausua /-ta/ atzizkidun erresultatiboen sorrera izan zen, koordinazioaren berranalisiaren bidez, (8)n erakusten den bezala:

- (8) /-ta/-dun perpaus jokatugabeen bilakaera
[hau ikusi] eta [alde egin zuten] > [hau ikusita] [alde egin zuten]

Printzipioz, arrazoizkoa dirudi pentsatzeak (9a)ko eta (9b)ko egiturak ere aldi eta modu berean sortu zirela, berranalisiaren bidez:

- (9) Berranalisi hipotetikoak (baina faltsuak)
- [hau ikusi] eta [gero alde egin zuten] > [hau ikusita gero] [alde egin zuten]
 - [hau ikusi zutenez] [gero alde egin zuten] > [hau ikusi zutenez gero] [alde egin zuten]

Hala ere datu filologikoek esaten digute gauzak ez zirela horrela gertatu. Partikulariki, *-n(ez) gero (-n azkero)* tankerako egiturak lehen testuetatik aurkitzen ditugu, (10)n ematen ditugun Lazarragaren adibideetan bezala:

- (10) *-n(az) gero* Lazarragarengan (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- Orrela gura *doçun azquero*, ezin neyque besteric.
 - Ene penea *daucusun guero*, arren, berba bat esazu
 - O falsa traidorea, quen aquit neure begietaric, ene desdicheonen causea i *axanazquero*

Aldiz, *ikusita gero* tankerakoak ere modernoak dira (Krajewska, 2013, 15. orr.).

Lehen testuetatik aurkitzen ditugu *gero* menderagailuaren hiru erabilera nagusiak, alegia, denbora (11), kausa (12) eta baldintza, (13):

- (11) Denbora (bereziki aditz jokatu gabeekin)
- Ierusalemeko tenploaren egitean, eta *eginez gero* ere (Axular, *Gero*, 1643)
 - Uholdea *iraganez gero* jende infidel gehiago izatu da lurrean ezen fidel. (Etxeberri Ziburukoa, *Manual debozionezkoa*, 1627, 1669)
 - Munduaren hastetik huneraiño, iendeak iende *direnaz geroztik*, badakit puntu haur: gaixtoen laudorioa labur dela, eta hipokritén alegiantza are laburrago, puntu bat bezala. (Axular, *Gero*, 1643) (Jokatua)
- (12) Kausa (bereziki aditz jokatu ekin)
- Ene penea *dakusun gero*, / arren, berba bat esazu (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- (13) Baldintza (bereziki aditz jokatu gabeekin)²
- Ordea, *prometatuz gero* obligatzen dute konseillu hauk? (Mattera, *Dotrina kristiana*, 1623)
 - Halaber amak bere haurra zehatuko duela *zin eginez geroz* zehatu gabe utzte hura ezta bekhatu (Haranburu, *Debozino eskuarra*, 1635)
 - Franzisko, ta zertako du batek mundu guzia, bere anima *galdu ezker*? (Mendiburu, *Festegunetarako irakurraldiak*, 1740-1767)

2 Adibide batzuk ahalezko irakurketa bat baino gehiago izan ditzakete. (13)n, Matteraren adibidea *OEHN* aurkitzen dugu «si, en caso de» itzulpenarekin, baina agian posible izango litzateke denborazkoa bezala interpretatzea, irakurle anonimo batek esaten digun bezala. Haranbururen adibideak ere denborazko irakurketa onartzen du agian. Mendibururen adibidea Bibliaren bertso ezagun baten parafraasia da (Markos 8:36), eta, beraz, badirudi baldintzazkoa bezala interpretatu behar dela, hori baita Vulgatan eta gaztelaniazko zein frantseseko bertsiotatik askotan erabiltzen den egitura: *quid enim proderit homini si lucretur mundum totum et detrimentum faciat animae suae* (Vulgata) / *Car que profiterait-il à un homme de gagner tout le monde, si il fait la perte de son âme?* (Martin 1744) / *Porque ¿qué aprovechará al hombre, si ganare todo el mundo, y pierde su alma?* (Sagradas Escrituras 1569).

Formari dagokionez, pentsatu behar dugu Lazarragak erabiltzen duen *-n gero* egitura *-nez gero* ~ *-naz gero* egitura baino zaharragoa dela. Beharbada instrumentala sartu zen egituran perpaus jokatu gabeetako *-z gero* egiturarekiko analogiaz. Adib: I. garaia, *ikusi-z gero*: *ikusi dugu-n gero* > II. garaia, *ikusi-z gero*: *ikusi dugu-n-ez gero*³.

Lehen testuetatik aurkitzen dugun beste bilakaera bat *-nez gero* ~ *-naz gero* egituraren berranalisi morfologikoa da, *ezkero* ~ *azkero* postposizioa sortuz. Jadanik Lazarragarengan beste urrats bat erideten dugu berranalisi honetan. Lazarragak *doçun azquero* bezalakoak idazteaz gain, *azquero* erabiltzen du adberbio bezala (Mounole, 2015):

- (14) *-az gero* > *azkero* (adb.) Lazarragarengan
- a. Ese banatan bici cirean, / ceñac eusten alcarri; / eurac biac oy ebilcen, / bapere baga lagunic; / gazte cirean artean, baña / *azquero* beti loturic. (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
 - b. Debecatuco oy deustae / ari eguiten apea; / ez gueiago ez jagot joco / contereagaz atea. / Erraz daoque azquero gueldi / oi ene errodelea / arcaan barriz erraz dafinquet / malla finezco cotea. / Oi eztot cerren *azquero* janci / seda finozco calcea, / ez gueiago aren gañean / çapata cuchilladea. (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)

Ezkero formaren berranalisis adberbio iragankor bezala arrakastatsua izan da men-debaldean, (15)ko adibideetan erakusten den moduan:

- (15) *azkero* ~ *ezkero* adberbio iragankor bezala
- a. Aizkenengo konfesio *azkero* egin diraden pekatuak (Otxoa de Arin, *Doktrina*, 1713)
 - b. Yauna, Yauna! bigundu egidazu biotz gogor au; emoidazu bekatuen gorroto andia; eta munduko egotaldi labur au *ezkero*, eregi nagizu zeruko gloria goi ederra (Añibarro, *Esku liburua*, 1821)

Horretaz gain, *geroz* eta *geroztik* aldaerak ere aurkitzen ditugu, batez ere iparraldeko idazleengan⁴.

Lan honetan denboratik kausara daraman gramatikalizazio-bidean zentratuko gara. Hala ere, eta gaia hobeki mugatzeko, hurrengo atalean esango ditugu hitz bi baldintza-perpausen bilakaeraz.

3 Antzeko zerbait gertatu da gaztelaniaz ere denborazkoetan: I. *después de ver* : *después que vimos* > II. *después de ver*: *después de que vimos*.

4 Morfologia desberdina bada ere (atzizkia vs aurrizkia) antzeko fenomenoak ditugu hizkuntza erromani-koetan ere lat. *post* hitzetik garatu diren formekin, *cf.* gazt. *des-pués*, *en-des-pués*, gask. *des-puix*, *a-puix*, fr. *de-puis*, etab.

4. DENBORATIK BALDINTZARA

Egitura jokatu gabe edo partizipialetan, mendeko perpausaren eta esaldi nagusiaren artean dagoen erlazio semantikoa testuingurutik atera daiteke, bereziki norabide argumentatibotik (Thomson & Longrace, 1983, 202-203, 206-211. orr.)⁵. Modu honetan, denbora erlazioaz gain, kausa, baldintza eta kontzesio erlazioak sor daitezke. Kausazko interpretazioa sortzen da mendeko perpausa faktiko bezala interpretatzen denean eta bi perpausak orientazio argumentatibo bera dutenean. Baldintzazko interpretazioa sor daiteke mendeko perpausa faktikoa ez denean eta beraz adierazten duen egoera gerta daiteke edo ez. Azkenik, perpaus nagusiaren eta mendekoaren orientazio argumentatiboak kontrakoak direnean interpretazio kontzesiboa sortzen da.

Euskaraz, *-ez gero* ~ *ezkerro* menderagailuarekin osatzen den egitura partizipialak baldintza esanahia garatu du, ikus (16):

- (16) ¡A jauna! Guk urteko pitarra izan *ezkerro*, eta esne ta tratu pixka bat plazarako, ez gera aserre. (Soroa, *Baratzan*, 1963)

Baldintza-erabilera horrek maiztasun handia du gaur egungo euskaraz, *nahi izanez gero* bezalako esapideetan. Mogelen adibideak erabiliko ditugu bilakaera erakusteko. Baldintza interpretazioa geroaldiko perpausetan sortu daiteke errazki, hurrengo adibideetan bezala:

- (17) a. A baita nolako pakea geldituko dan zure animan konzienzia garbitu *ezkerro*! (Mogel, *Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean erakasteak*, 1800)
 b. Ipiñi zituen Jangoikoak Paradisoan arbola mota bi beste askoren artean. Arbola bata zan osasunekoa, edo bizitza luzatzen zuana. Etzan iñor illko arbola artatik jan *ezkerro*, jaten ezpazuen bigarren Arbolatik, zeña zan eriotza zekarrena. (Mogel, *Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean erakasteak*, 1800)

(17)ko adibideetan perpaus nagusiaren denbora etorkizunean kokatzen denez (*geldituko da; etzan illko*), geroago gerta daitekeena baldintza bezala interpreta daiteke. Aldiz, normalean denbora-irakurketa izango dugu perpaus nagusia lehenaldian dagoenean, edo iraganeko testuinguruetan. Gertaera burutu denez, ez dago baldintzarik:

- (18) a. Konfessore zenzu gutxikoak esaten dio, Zer? Berori erori bekatu ain itxusian? Errege baten alaba, ta anbeste urtean santa bat bezela bizi *ezkerro*? (Mogel, *Konfesio ta komunioko sakramentuen gañean erakasteak*, 1800)

5 Beharbada merezi du «norabide argumentatiboa» zer den azaltzeak. «A eta gainera B» esaten badugu, bi perpausak norabide argumentatibo bera dute, ondorio berara garamatzate. Aldiz, «A baina B» edo «A, nahiz eta B» esaten badugu, norabide argumentatiboa aldatzen da lehen perpausetik bigarrenera (ikus Anscombe & Ducrot, 1983).

- b. Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauez balearen sabelean ibiliz *gero*, bizirik leihorrera iltkiko zela? (Axular, *Gero*, 1653)⁶

Azkenik, aditz nagusia orainaldikoa denean, badirudi kausazko irakurketa posible dela batzuetan, baldintzazkoaz gain, perpaus jokatu gabeetan ere (19):

- (19) PART+ *-ez gero* baldintza edo kausa perpausak
- a. Zein eder ta gozua! Zetarako ete dira piper ta azapraez gorrituriko saldaak onelangua euki *ezker*o? (Mogel, *Peru Abarka*, 1802, 1881)
- b. Alan oi da; ta zuk ain apainduba egon *ezker*o, eztozu prestubez dollor, zikotz, zeken, ta ziskuestutzat zeure buruba agertu biar (Mogel, *Peru Abarka*, 1802, 1881)

5. DENBORATIK KAUSARAKO BERRINTERPRETAZIOAREN TESTUINGURUAK

Esan bezala, denbora adierazten duen mendeko perpaus bat kausa-adierazle bezala berrinterpretatu daiteke eta hori da gertatu omen dena sarreran aipatu ditugun ingelesaren, gaztelaniaren eta frantsesaren juntagailuekin (h.d. ing. *since*, gazt. *pues (que)* eta *ya que*, fr. *puisque*). Euskal *gero* hitzak ere antzeko bilakaera bat pairatu du.

Denborazko elementuetatik garatzen diren juntagailuekin kausazko esanahia metonimiaz sortzen da. Inferentzia pragmatikoa gramatikalizazioaren bidez konbentzionalizatzen da (ikus Geis & Zwicky, 1971; Levinson, 1995; Traugott & König, 1991, 192-199. orr.; Traugott & Dasher, 2002, 16-17, 80. orr., beste batzuen artean). Kausazko inferentzia sortzeko, denborazko mendeko perpausak predikazio nagusitik deslotu eta perpaus nagusiaren aurrean kokatu behar du, mintzagai bezala (Gutiérrez Ordóñez, 2000, 91. orr.; Goethals, 2002, 100-114. orr.; Pérez Saldanya & Hualde, 2017, 329-331. orr.)⁷. Normalean, kausazko inferentziak bakarrik testuinguru horretan konbentzionalizatzen dira.

6 Hona L. Villasanteren gaztelaniazko itzulpena: *¿Quién había de decir que fuera a salir vivo a tierra un hombre que había pasado tres días y noches en el vientre de una ballena?*

7 Diessel-ek (2001) erakusten duen bezala, tipologikoki desberdinak diren hizkuntza askotan denbora perpausak oso maiz agertzen dira nagusiaren ezker aldean. Kokagune horretan kausazko inferentzia sor daiteke errazkiago. Hurrenkeraren garrantzia kausazko inferentziak sortzeko argi dago egitura koordinatuetan. Adibidez, *Erori zen eta hanka apurtu zuen* esaten badugu kausazko inferentzia bat dugu, alegia, erori zelako apurtu zuela hanka. Aldiz, perpausen hurrenkera kontrakoa bada (*Hanka apurtu zuen eta erori zen*), ulertzen dugu erori zela hanka apurtu zuelako. Lehen agertzen dena, hurren esaten denaren kausatzat hartzen da. *Gero* bezalako denborazko lokailu bat badugu, perpausen hurrenkera ez da hain funtsezkoa, *gero* hitzak denborazko erlazioa adierazten baitu. Hala ere, mendeko perpausa perpaus nagusia baino lehen agertzen bada, kausazko interpretazioa errazten edo indartzen da. Gauza bera dugu moduzko perpausekin, ikus adib. *Zure mezua berandu jaso nuenez, ezin izan nintzen garaiz iritsi* (adibidea Elhuyar hiztegitik hartu dugu).

Kausazko inferentzia konbentzionalizatu eta gero, hurrenkera alda daiteke, euskaraz *eta*-dun kausazkoekin ikusten dugun bezala (adib. *Etxera noa, berandu da-eta*), baina hau bigarren urrats bat da⁸.

Beraz, esan daiteke hasiera batean *post hoc > propter hoc* delako berrinterpretazioa oso testuinguru espezifikoetan gertatzen dela, ikus (20):

- (20) *Denbora > kausa*. Gramatikalizazioaren baldintzak
1. Mendeko perpausak informazio ezaguna adierazten du edo mintzagaia da,
 2. Mendeko perpausuan adierazten den proposizioa perpaus nagusiarena baino lehen kokatzen da denboraren ardatzean, eta
 3. Mendeko perpausa perpaus nagusiaren aurretik kokatzen da.

Hiru baldintzak betetzen direnean, testuinguruaren ikonizitateak errazten du kausazko inplikatura. Beraz, *-nez gero* lokailuaren kasuan, hurrengoak izango lirateke zubi testuinguruaren adibideak:

- (21) a. [Iainkoaren ohoratzeko bigarren parteaz, obedienciaz, asko luzaki minzatu garenaz *geroz*], minza gaitezen orain hirugarren parteaz. (Leizarraga, *Katexis mea*, 1571)
- b. [Fedeari eta Esperanzari dagotzan gauzak (zein baitira artikulu fedezkoak, ta orazinoak) deklaratu ditugunaz *geroz*], minza gaitezin orai Karitateari dagotzanez, zein baitira Iainkoaren manamendu sailduak. (Materra, *Dotrina kristiana*, 1623)
- c. [Hamar manamenduak hunela deklaratu ditugunaz *geroz*], erradazu orai: Nork eman ditu hamar manamendu hauk? (Materra, *Dotrina kristiana*, 1623)
- d. Munduaren hastetik huneraiño, [iendeak iende direnaz *geroztik*], badakit puntu haur: gaixtoen laudorioa labur dela, eta hipokriten alegiantza are laburrago, puntu bat bezala. (Axular, *Gero*, 1643)
- e. Lehen ogia eta arnoa ogi eta arno ziren: baiña [Aphezak konsekratzeko hitzak erranez *gero*], ezta ogirik eta ez arnorik, baiña da Iesu-Kristoren odol bizia, eta gorputz preziatu bizia dibinitatearekin iuntatua, hain egiazki eta errealki nola baitago zeruan bere Aitaren eskuiñeko aldean. (Materra, *Dotrina kristiana*, 1623)

Leizarragaren eta Materraren adibideetan, (21a,b,c), ezker aldeko mendeko esaldia denbora- zein kausa-adierazle bezala uler daiteke. (21d)an, Axularren adibidean, oinarritzko interpretazioa denborazkoa bada ere, posible da ulertzea *iendeak iende direnaz geroztik* perpausak arrazoia ere adierazten duela. Azkenik, (16e)ko Materraren adibidean mendeko perpaus jokatu gabe bat dugu. Hemen ere lehen interpretazioa denborazkoa da, baina baldintzazko edo kausazko inplikatura bat dugu.

⁸ Hizkuntza erromanikoetan ez bezala, *eta* juntagailua enklitiko da euskaraz, euskal hizkera askoren prozesu fonologikoek erakusten duten bezala; adib. *hiru-te lau, bi-tte hiru*. Honek esplikatzen du, neurri batean, zergatik kausazko inferentzia gramatikalizatu zen egitura koordinatuetan euskaraz eta ez hizkuntza erromanikoetan.

(20)n aipatzen dugun bigarren baldintza beti betetzen da *-nez gero* egiturarekin, *gero* adberbioaren esanahi lexikalak adierazten baitu. (20)ko beste bi baldintzen artean, azkena –hau da, mendeko perpausa nagusiaren aurretik edo atzetik datorren– bestea baino errezagoa da kuantifikatzeko. Adibidez, goian, (10)n ematen diren adibideetan hurrenkera bat dugu Lazarragaren lehen bi etsenpluetan (mendekoa-nagusia) eta kontrakoa hirugarrenean (nagusia-mendekoa).

8. atalean corpus-ikerketaren emaitza kuantitiboak erakutsiko ditugu; *-nez gero* egituraren bilakaera 7. atalean aurkezten ditugun gaztelaniazko eta katalanezko egiturekin erkatuz.

Corpuseko adibideak informazio motaren arabera sailkatzea zailagoa da eta subjektibitate elementu bat egon daiteke. Hemen, 6. atalean, saiatu gara dena den alderdi hau aztertzen Axular eta Lazarragaren adibideekin, baina bakarrik era ez-kuantitatiborekin eta azterketa diakronikorik egin gabe.

6. INFORMAZIO MOTA ETA ‘DENBORA > KAUSA’ BILAKAERA

Gramatikalizazioaren testuingurua dela-eta, *gero*-dun kausazkoak kanpoko perpausak dira eta ezin daitezke galdegaia izan (EGLU VI, 167-169. orr.). Horretaz gain, ez-asertziozkoak (auresuposiozkoak) dira gehienetan. Haien esanahia ‘hori kontuan izanik’ parafraziaren bidez azal daiteke (EGLU VI, 192. orr.). Hau da, ez dute baieztatzen beren edukia, gauza ezaguna delako entzule edo irakurlearentzat, edo diskurtsoaren atzealdean (*background*) dagoelako⁹. Beraz, askotan kausazko perpausak ematen duen informazioa agertu da lehenago diskurtsoan eta berreskuratzen da ondorio baten arrazoi bezala. (22)ko adibidean kausazko perpausa eta bere antezedentea letra etzanean jarri ditugu:

- (22) *Abiatu zen egun batez Iondone Petri, itsas gaiñean, Iesukristo bere nabusiagana. Eta abiatu zen berehala oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe, leihorrean izan bailliz bezala, fidantzia handi batekin, esperantza segur batekin, bere Iainko nabusiagana zihoanaz geroztik, haren faborearekin batean, itsasoak iasanen zuela, etzela ithoko, eta ez hondatuko.* (Axular, *Gero*, 1653)

Beste batzuetan kausazkoak daraman informazioa gauza ezagun bezala aurkezten da (23a), testuingurutik atera daiteke (23b, c), edo entzuleak dakien zerbait da (23d).

⁹ *Bait-* edo *eta* daramaten kausazkoak ere kanpokoak dira: *eta* atzikia dutenak asertziozkoak dira eta *bait-* aurrizkia daramatenak asertziozkoak zein ez-asertziozkoak izan daitezke. *Gero*-dun kausazkoak bezala ez dira galdegaia, baina adierazten duten informazioak perpaus nagusiarena osatzen du (EGLU VI, 180-186, 198-203. orr.).

- (23) a. Ordenatu zuen ezen halaz, eta legearen arauaz, halako hutsik egiten zuenari bi begiak irazi eta *athera behar zeitzanaz geroztik*, athera ziazotela aitari berari bere begietarik bata, eta semeari berètarik bertzea. (Axular, *Gero*, 1653)
- b. Bada bear dozu *dagoan gero* /gau aroau illun fresko ta oza / dulzero kopladu ene bioza (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- c. *Dakusun azkero* ene negarrok/ene laztan maite bioz gogorra/nola zara nigaz mutu ta gorra (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- d. Paga ezazu zerorrek, zeurk zor duzunaz *geroztik*. (Axular, *Gero*, 1653)

Kausazkoaren eduki informatiboa ezaguna denez gero, *honela* edo *horrela* bezalako adberbio anaforikoekin ager daiteke (*honela/horrela denez gero*, etab.):

- (24) a. *Bada* –esan eben arzai batak– *orrela dan azkero*, goazen guztiok batera (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- b. *Bada gauza hauk hunela direnaz geroztik*, nolatan duzu zuk uste, gero hobeki onduko zarela eta bekhatutik iltkiko zarela orai baiño? (Axular, *Gero*, 1653)
- c. *Orrela gura doçun azquero*, / ezin neyque besteric. (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)


Eskuin aldeko periferian agertzen direnean ere, *-nez gero* atziki multzoarekin eratu-tako kausazkoek informazio ezaguna adierazten dute; lehenago aipatua izan dena (25a) edo testuingurutik atera daitekeena (25b):

- (25) a. Eta garzele hunetarik atheratzen gaitu Iainkoaren iustiziak, egun bat, bihar bertze bat, bata lehen, bertzea gero, eztaki nehork noiz, *ezta segurantzarik*. Beraz gauden erne, gauden prestik, *segurantzarik eztenaz geroztik*. (Axular, *Gero*, 1653)
- b. Doristeo, zegaiti zoaz / zeurori bada galdurik, /Silbiak, oita, *dakusun gero* / on deretxana besteri? (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)

Berrinterpretazioa gertatu eta gero, egitura testuinguru berrietara heda daiteke, murritapenak leunduz. Kausazko interpretazioa konbentzionalizatzen den heinean, gero eta adibide gehiago aurkituko ditugu gramatikalizaziogunetik kanpo.

7. KAUSAZKO PERPAUSAREN KOKAGUNEA HISTORIAN ZEHAR GAZTELANIAZ ETA KATALANEZ


Mendeko perpausaren kokaguneaz den bezain batean, gaztelaniaz, espero dugun eboluzioa ikusten dugu, bai *pues (que)* lokailuarekin, baita beranduago sortzen den *ya que* lokailuarekin ere. 1. irudian Pérez Saldanyak (2014) bere corpuserako ematen dituen ehunekoak erakusten ditugu.



1. irudia. Gazt. *pues (que)* (beltza) eta *ya que* (grisa) lokailudun menpeko perpausaren kokapena historian zehar. y= ehunekoak, perpaus nagusiaren ondoren; x= mendea. (Datuak Pérez Saldanya, 2014 artikulutik atera ditugu).

Lehen irudian ikusten den bezala, XII-XIV. mendeetan *pues (que)* kausazko lokailua oso gutxitan agertzen da perpaus nagusiaren ondoren, baina XV. mendetik aurrera gero eta maizago kokatzen da eskuin aldera eta azken bi mendeetan ia beti perpaus nagusiaren ondoren aurkitzen dugu. Irudiak erakusten duen bezala, *ya que* lokailuak beranduago hartzen du kausazko interpretazioa, XVII. mendean. Hasiera batean, hau da, XVII-XVIII. mendeetan, lokailu hori daramaten mendeko perpausak nagusiaren ezker aldera kokatzen dira ia beti, baina XIX. mendetik hona guztiz aldatzen da joera.

Beste lan batean, azterketa errepikatu genuen katalanezko corpus bat erabiliz *puix que* eta *ja que* lokailuekin (Pérez Saldanya & Hualde, 2017). Emaitzak oso antzekoak ziren, ikus 2. irudia.



2. irudia. Kat. *puix ~pus (que)* (beltza) eta *ja que* (grisa) lokailudun menpeko perpausaren kokapena historian zehar. y= ehunekoak, perpaus nagusiaren ondoren; x= mendea. (Datuak Pérez Saldanya & Hualde, 2017 artikulutik atera ditugu).

Gaztelaniaz eta katalanez mendeko perpausaren lekualdatzea funtzio informatiboarekin lotzen da. Hasiera batean, kausazko perpaus hauek ez-asertziozkoak dira eta perpaus nagusiaren aurretik agertzen dira, (26a)ko adibidean bezala. Baina bilakaera diakronikoan gero eta gehiago asertziozkoak izan daitezke, informazio berria emanez, eta perpaus nagusiaren ondoren kokatzen dira (26b).

- (26) a. Ya que tanto te interesa ¡hazlo tú!
 b. Tuvieron que posponer la reunión, ya que todo el mundo estaba muy cansado.

Bilakaera osoa hiru urratsetan labur dezakegu:

- (27) Gazt. *pues/ya que* lokailuen bilakaera diakronikoa
 I. Denborazko lokailua (ezker aldeko periferian) >
 II. Kausazko lokailua honako perpausetan: kanpokoak, ez-asertziozkoak, mintza-ekintzazkoak eta antzekoak (normalean ezker aldeko periferian) >
 III. Kausazko lokailua honako perpausetan: kanpokoak, asertziozkoak, edukizkoak (normalean eskuin aldeko periferian)

Gaztelaniaz, *pues* lokailuak erakutsitako gramatikalizazio bidea burutu du eta *ya que* lokailua bide beretik doa.

8. GERO-DUN KAUSAZKO PERPAUSEN KOKAPENA HISTORIAN ZEHAR

Goian aipatutako baldintzek kausazko inplikaturaren testuingurua definitzen duten neurrian, antzeko bilakaera bat espero genuke beste edozein hizkuntzatan. Hemen, gure galdera da, beraz, ea *gero* kausazko lokailuak portaera diakroniko bera erakusten duen. Ikerketa hau egiteko *Klasikoen Gordailua* (klasikoak.armiarma.eus) erabili dugu, mende bakoitzerako egile errepresentagarri batzuk aukeratuz.

Jakina denez, morfologiari dagokionez, badira forma desberdinak. Adibidez, Lazarragak *-n gero* (adib. *daukusun gero*) eta *-n azkero* (adib. *dozun azkero*) erabiltzen ditu, esanahi diferentzia nabarmenik gabe. Axularrek, aldiz, *-naz gero* ~ *-naz geroztik* ~ *-naz geroz* aldaerak erabiltzen ditu aditz jokatuekin, ikus (28).

- (28) Axular: *-z geroz* ~ *-z geroztik* kausa perpausetan
 a. Ordea karga da, eta karga *denaz geroz* segur da zenbait neke,
 b. Bada gauza hauk hunela *direnaz geroztik*, nolatan duzu zuk uste, gero hobeki onduko zarela eta bekhatutik iltkiko zarela orai baiño?

Bilaketak egiteko *-n gero*, *-z gero(z)(tik)* eta *-zkero* sekuentziak bilatu ditugu corpusean. Guri hemen kausazko esaldiak soilik interesatzen zaizkigu, baina esan behar da diferentzia handiz erabilera arruntena denborazkoa dela. Adibidez, Axularren *Gero-n*, 23 kausazko adibide aurkitu baditugu ere, denborazkoak (aditz jokatu gabeekin) ehundaka dira. Egia esan, aukeratu ditugun obra batzuetan ez dago kausazko adibiderik. *Re-*

franes y Sentencias liburu anonimoan 7 adibide aurkitzen dira partizipio + *azkero* egiturarekin. Zazpiak denborazkoak dira, denak «después de» bezala itzulita gaztelaniaz:

- (29) *Refranes y sentencias*: part+*azkero*
 166. Hurdinetan assiasquero prestuesta seyzarao,
 «Después de comenzado a encanecer no es de provecho el niñear»
 297. galdu azquero ondasuna, da eçauna
 «después del bien perdido es conocido»
 379. urdeoc il azquero
 «después de muertos los puercos»
 399 lastategui zaarra exeki azquero gach da asedeyten
 «el viejo pajar después de encendido malo de apagar es»
 433. Ondasunac galdu azquero dira ezaun
 «Después de perdidos los haberes son conocidos»
 441 esea erre azquero vretan
 «Después de la casa quemada, por agua»
 452 ni yl azquero vere, ydioc exar daye
 «Después de yo muerto también los bueyes ararán»

Era berean, Mikoletak adibide bat dakar partizipio + *azkero* egiturarekin, gaztelaniazko «cuando» itzuliz: *y quando las ha hallado le pessa.-- ta ydoro asquero oydauela damu*. Beriainen (1621) *Tratazen da nola enzun bear den meza* liburuan eta *Dotrinan* (1626) aurkitu ditugun adibide guztiak ere jokaturgabeak eta denborazkoak dira (adib. *kalizan ardoa konsagratus gero*). Beste adibide bat emateko, Tartasen *Ontsa hiltzeko bidian* eta *Arima penitentaren okupazione debotak* liburuetan 50 bat perpaus jokaturgabe aurkitu ditugu *geroz* formarekin (horien artean *hilez gero* askotan errepikatua), baina bakarrik 2 kausazko, aditz jokaturgabeekin.

J.A. Mogelen *Peru Abarka* (1802) liburuan 5 kausazko adibide aurkitu baditugu ere, bere *Konfesio eta komunioko gañean erakasteak* (1800) liburuan 2 adibide besterik ez dugu kausitu. Liburu horretan *ezkero* hitza 37 aldiz aurkitzen da, baina ia beti partizipio baten ondoren eta denbora zein baldintza interpretazioarekin¹⁰.

Denbora eta baldintza perpausak alde batera utziz, gure ikerketa esparrua kausazkoetara mugatu dugu. Bakarrik perpaus jokatuak hartu ditugu kontuan, kausazko interpretazioa egitura horietan sortzen baita oro har. Kausazko interpretazioa izan dezaketen perpaus jokaturgabeak oso gutxi direnez gero, erabaki dugu albora uztea gure analisian.

10 Irakurle anonimo batek adierazten digun bezala, interesgarria izango litzateke ikustea ea mendeetan zehar denborazkoen maiztasuna aldatzen den, beste erabilerekin erkatuta. Beste lan baterako utzi behar dugu ikerketa hori.


Taulan adibideak sailkatu ditugu menpeko perpausaren kokapenari dagokionez. Berriro ere, ikerketa honetarako perpaus partizipialak albora utzi ditugu eta bakarrik aditz jokatua dutenak hartu ditugu kontuan¹¹:

2. taula. *Gero*-dun perpausa jokatuen kokapena

Idazlea - liburua	Iparralde/ Hegoalde	Urtea	Lokailua	Kaus. Aurrean	Kaus. Atzean	Denb.
B. Etxepare	Ipar	1545	<i>-n gero</i>	2	0	0
J.P. Lazarraga	Hego	1567	<i>-n gero</i> <i>-n azkero</i>	18	13	1
J. Leizarraga- <i>ABC&Kateximea</i>	Ipar	1571	<i>-naz geroz</i>	24	10	1
E. Materra	Ipar	1623	<i>-naz geroz(tik)</i>	7	3	3
P. Axular	Ipar	1653	<i>-naz geroz(tik)</i>	14	10	1
J. Etxeberri <i>Ziburukoa-Manual</i>	Ipar	[1627] 1669	<i>-n geroz</i> <i>-naz geroz(tik)</i>	18	6	1
J. Haranburu	Ipar	1635	<i>-naz geroz(tik)</i>	9	9	0
J. Tartas- <i>Ontsa&ArimaP</i>	Ipar	1666&1672	<i>-naz geroz</i>	0	2	0
J. Etxeberri Sarakoa- <i>Gom- Karta&EHGazt&EHats</i>	Ipar	1718	<i>-naz geroztikan</i>	13	6	0
M. Xurio- <i>JKtImit</i>	Ipar	1720	<i>-naz geroz(tik)</i>	5	35	0
S. Mendiburu	Hego	1740-1777	<i>ezkero</i>	3	1	0
B. Larregi	Ipar	1775	<i>-naz geroz</i>	29	28	1
JA Mogel- <i>PeruAb-konf KomErak</i>	Hego	1800-02	<i>-(a)n ezkero</i>	3	4	0
R. Artola	Hego	1896	<i>ezkero(t)z</i>	1	0	1
J. Duvoisin- <i>Telemake</i>	Ipar	c. 1833	<i>-nez geroz</i> <i>-nez geroztik</i>	3	22	0
J.I. Arana- <i>SignLoiola, Liburutxo, OfizLab</i>	Hego	1870-72	<i>ezkero</i>	2	4	0
J.A. Labaien	Hego	1930-70	<i>ezkero</i>	62	6	10
P. Larzabal	Ipar	1933-	<i>-nez gero</i>	33	13	0

Taulako datuak ikusita, argi dago bilakaera diakronikoa ez dela izan gaztelaniaz edo katalanez bezala, menpeko perpausaren kokapenaz den bezain batean. Ez dago joera garbirik mendeetan zehar. Grafikoki, 3. irudian erakusten ditugu gure azterketaren emaitzak.


11 Morfologiari dagokionez, G eta B-ko testuetan *ezkero* aldaki erabiliena da (*azkero*, XVI. mendeko idazleengan, baita modernoago batzuetan ere, *cfr. OEH s.v.*). Badirudi hau ez dela ortografia kontu hutsa, *ezkero ~ azkero* adberbio bezala gramatikalizatu baita euskalki horietan eta izen baten ondoren erabili daiteke (*cfr. harrezkero* bezalakoak ere). Iparraldeko euskaraz, aldiz, berranalisi morfologiko hori ez omen zen gertatu eta hango testuetan *ezkero* forma ortografikoa ez da kausitzen. Aldiz, iparraldean *geroz* eta *geroztik* forma indartuak ia orokorrak dira.



3. irudia. -n(ez) gero kausazko perpausen kokapena.

Datuen banaketa egileka aztertuz, 4. irudiko histograma lortzen dugu. Guztira, bildutako adibideen % 44,6n mendeko perpausa perpaus nagusiaren ondoren dator, batuz beste. Baina egileen arteko desbideratze estandarra erlatiboki handia da, hots, % 22,9koa. Euskalkia kontuan hartuz gero ere ez dago alde nabarmenik.

Aldiz, testu mota esanguratsuagoa da. Badira normatik kanpo geratzen diren bi idazle: Xurio eta Duvoisin (*Telemake* bere liburuan). Bi idazle horiek ia beti kokatzen dute gero-dun kausazko perpausa perpaus nagusiaren ondoren. Aldiz, aztertu ditugun bi antzerkilari modernoek, Jose Antonio Labaienek eta Piarres Larzabalek oso gutxi erabiltzen dute hurrenkera hori, batez ere Labaienek. Irakurle batek ohartarazten digunez, testu generoaz gain testua itzulpena izateak ala ez izateak ere ondorio zuzena izan dezake perpausen hurrenkera.



4. irudia. Kausazko perpausa nagusiaren ondoren. 2. taulako datuen banaketa.

Hipotesia, beraz, ez dugu baieztatu euskararako. Mendeko perpausaren kokagunean ez dugu bilakaera diakroniko argirik ikusten. Kontuan hartu behar da, noski, euskaraz beste mendeko perpaus motak ere perpaus nagusiaren ezker aldean kokatzen direla komunzki, gaztelaniaz ez bezala, adib. [*egin duela*] *esan dit* vs *me ha dicho [que lo ha hecho]*, [*datorren*] *astean* vs *la semana [que viene]*, etab. Beraz, ez dugu joera orokor bat mendeko perpausa nagusiaren eskuin aldean jartzeko.

Horretaz gain, emaitza negatibo hau ebaluatzeko orduan, kontuan hartu behar da neurri batean arrazoia datu falta izan daitekeela. Alde batetik, kausazko esanahiaren gramatikalizazioa burutua zegoen jadanik lehen testuetan. Bigarrenik, egitura ez da oso emankorra izan historian eta euskalkietan zehar¹².

Bestalde, diferentziaren beste arrazoi bat izan daiteke *-nez gero* lokailuak diakroniki hartu dituen balio pragmatikoak ez direla gazt. *ya que* lokailuak hartu dituenak. Artikulua bukatzeko, *-nez gero* lokailuak izan ditzakeen erabilerak aztertuko ditugu.

9. -N(EZ) GERO ATZIZKI MULTZOAREN BIDEZ ERATUTAKO KAUSAZKO PERPAUSEN ERABILERA

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, *gero*-dun kausazko perpausen bilakaera diakronikoa ez da izan gazt. *ya que* eta *pues* juntagailuek izan dutena bezalakoa. Gaztelaniaz (edo katalanez) ez bezala, mendeko perpausaren kokaguneaz den bezain batean ez dago bilakaera argirik. Neurri batean arrazoia izan daiteke lokailuen esanahia desberdina dela. Atal honetan aztertu nahi dugu zein neurritan *-nez gero* kausazko lokailuaren erabilera eta gazt. *ya que* lokailuarena antzekoak edo desberdinak diren.

Adierazten duten informazio motari dagokionez, *gero*-dun perpausak ez-asetziozkoak dira gehienetan. Hau da, informazio ezaguna edo bigarrenkaria ematen dute normalean. Hala ere, hizkuntza modernoan batzuetan informazio berria eta esanguratsua ekartzen dute, (30)ko adibideetan bezala (*Berria* egunkarikoak eta corpus honetatik: Sarasola et al., 2015, *Ereduzko Prosa Gaur*).

- (30) a. Are handiagoa izango da gaurkoa, urteurrena mendeurren bihurtu de-
nez gero (J. L. Zabala, *Berria*, 2004-06-16)
- b. Bere garaiko Itsasondo badoa, baina jende gehiago ere etorriko da, etxeak
eraikitzen ari direnez gero (M. Ziaurriz, *Berria*, 2004-10-02)

12 Ikus *OEH*, *gero* ‘ya que’ esanahiarekin: «documentado al Norte en los ss. XVI y XVII, más tarde es muy escaso hasta aprox. 1930; a partir de ésta época se encuentra en autores guipuzcoanos y alto-navarros».

Kausazko lokailu bat denbora adberbio batetik baldin badator, printzipioz espero dugu ez-asertziozko perpausetan erabiliko dela eta gehienetan oso erabilera zehatzak izango dituela: aginduak justifikatzeko, beharrezko bezala agertzen diren egoeren arrazoia emateko, etab. Horiek dira gazt. *ya que* lokailuak historikoki erakusten dituen funtzio nagusiak eta gramatikalizazioaren iturburuak azaltzen dituenak (Pérez Saldanya, 2014). Euskal *-nez gero* lokailuak ere erabilera horiek –baina ez horiek bakarrik– erakusten ditu aztertu dugun corpusean.

Ikus ditzagun *-nez gero* atzizki multzoaren kausazko erabilerak banan banan gure corpuseko adibideekin.

Hasteko, *gero*-dun kausazkoak, maiz agertzen dira elkarrizketetan (31a) eta narraiztaileak irakurleari ematen dizkion azalpenetan (31b).

- (31) a. Au eguiteco çugan asco da, / dama galanta, causaric, / çuri eguiten ez jaçun guero / ezertan agrabioric. (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- b. Haragiaren aphetitu desordenatuak egiten dituen desordenuez eta kaltez mintzo garenaz geroztik, goazin aitzinago, eta edirenen dugu, ezen emazte gizakoiak, eta gizonemakoiak, presuna putanerak eztuela deusetan ere sosegurik eta ez pausurik. (Axular, *Gero*, 1653)

Bigarrenik, kausazko perpaus hauek duten balio semantikoagatik («kontuan izanik») mintza-ekintza bat justifika dezakete. Bereziki, agindu edo eskaera baten (32a-f) edo galdera baten (33) azalpena eman dezakete.

- (32) Aginduak
- a. Ceurorrec emun doçun guero / causa originalea, / remedioçat ar eçaçu / ceurorrec sufrietea. (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- b. Paga ezazu zerrorrek, zeurk zor duzunaz geroztik. (Axular, *Gero*, 1653)
- c. Haragiaren aphetitu desordenatuak egiten dituen desordenuez eta kaltez mintzo garenaz geroztik, goazin aitzinago, eta edirenen dugu, ezen emazte gizakoiak, eta gizonemakoiak, presuna putanerak eztuela deusetan ere sosegurik eta ez pausurik. (Axular, *Gero*, 1653)
- d. Oi, Sirena, zenaen begiok direan norteagaz konparaduak, natxazu suplikae-tan nai dakizula ene peneau onein andia *dan azkero* remedioa *emun jagite*. (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- e. Suplicaetan nachaçu *deguidaçula* remedioa *emun*, medecinea çu çarean guero (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
- f. Ordenatu zuen ezen halaz, eta legearen arauaz, halako hutsik egiten zuenari bi begiak irazi eta *athera behar zeitzanaz geroztik*, *athera ziazotela* aitari bera-ri bere begietarik bata, eta semeari berètarik bertzea. (Axular, *Gero*, 1653):
- g. Horrenbeste *dakizunez gero*, *esazu* nork hil duen Jesukristo! (Larzabal, *Pastoralen antzeko antzerkiak*, 1969)
- h. Hola *denaz geroz*, *egin dezagun* berehala bataioa (Larzabal, *Pastoralen antzeko antzerkiak*, 1969)

- (33) Galderak
- Zergatik* utzi behar dugu geroko, ez berrogoi egunen baiña baten ere, segurantzarik *eztugunaz geroztik*? (Axular, *Gero*, 1653)
 - Bada gauza hauk hunela *direnaz geroztik*, *nolatan* duzu zuk uste, gero hobeki onduko zarela eta bekhatutik iltkiko zarela orai baiño? (Axular, *Gero*, 1653)
 - Doristeo, *zegaiti* zoaz / zeurori bada galdurik, / Silbiak, oita, *dakusun gero/on* deretxana besteri? (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
 - Zertako* nahi zinuen ene gogoaren berri jakin, Xexiliri jada izkiriatura *zinio-naz geroz*? (P. Larzabal, *Suedako neskatxa*, 1965)

Hirugarrenik, kausazkoa perpaus nagusiaren modalitatearen arrazoia edo justifikazioa emateko erabil daiteke. Hau da, kausazkoaren bidez adieraz daiteke egoera beharrezkoa, ezinezkoa, desiratua, etab., dela. Beraz, *behar* (34a-c) eta *ezin* (34d) bezalako aditz laguntzaileak eraman ditzakete perpaus hauek. Mendeko perpausak adierazten duen arrazoia hitzunari kanpotik ezartzen zaion zerbait izan daiteke, *horrela denez gero* tankerakoetan bezala.

- (34) Beharrezko egoerak eta antzekoak
- Bada *behar* dozu *dagoan gero* / gau aroau illun fresko ta oza / dulzero kopladu ene bioza (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)
 - Ordea, ezkaitu ez izitu *behar* azken finerañoko, edo gareinoko travaillu aphur batek; hartaz zeruko loria, hain gauza handia, erdiesten *denaz geroztik* (Axular, *Gero*, 1653)
 - Beraz hunelatan, gizonak ere, Iainkoak berak bere imajinara eta idurira, hain ederki egina *denaz geroz*, adimendura heltzen den bezain fite, bere egilleari berari, iduria eman dioenari, *behar* dio behatu, haren zerbitzuan behar du bere ahala enplegatu. (Axular, *Gero*, 1653)
 - Badabere, nic çuri deusudan amorioa ayn firmea *dan azquero*, baçoaç munduen cabura bere, *ecin* ichi neidiçu (Lazarraga, *Eskuizkribua*, c. 1567)

Honaino aipatu ditugun erabilerak gazt. *ya que* juntagailuak ere dituenak dira eta, esan bezala, denborazko zubi-kontestu diakronikoaren arabera azal daitezke (Goethals, 2002, 131-135. orr.; 2010, Pérez Saldanya, 2014, 3542-3551, 3563-3569. orr.; Santos Río, 1982, 242. orr.; katalanerako Pérez Saldanya & Hualde, 2017, eta frantseserako Ducrot, 1983 eta Zufferey, 2012).

Hala ere, badirudi euskal menderagailuak erabilera ez-asertziozko zabalagoa duela. Axularren testuan hurrengo adibideen itzulpenetan behintzat Villasantek *como* erabiltzen du eta badirudi *ya que* ez litzatekeela guztiz aproposa gaztelaniaz, *edukizko* eta *ez-asertziozko* perpausak baitira. Ez dira sartzen (31)-(34) adibideen kontestuetan. Villasanteren itzulpena ematen dugu adibideekin¹³:

13 Gazt. *ya que* menderagailua markatua da ez-asertziozkoetan; ñabardura pragmatiko bat sartzen du. Aldiz, *como* neutroagoa da aurreuposatzen den informazioa emateko.

- (35) Edukizkoak eta ez-asertziozkoak
- a. Eta abiatu zen berehala oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe, leihorrean izan bailliz bezala, fidantzia handi batekin, esperantza segur batekin, bere Iainko nabusiagana *zihoanaz geroztik*, haren faborearekin batean, itsasoak iasanen zuela, etzela ithoko, eta ez hondatuko. (Axular, *Gero*, 1653)
[Y empezó a andar a pie, sin ningún género de embarcación, barca o bote, como si estuviera en tierra, con una gran confianza, con una esperanza cierta de que *yendo como iba* a su Señor Dios, con su favor el mar le había de sostener, que no se ahogaría ni hundiría.]
 - c. Zeren baitakigu, ezen adiskide direnaz *geroz*, hek guztiak estaliko eta onera hartuko derauzkigutela. (Axular, *Gero*, 1653)
[Porque sabemos que, *como* son amigos, todo nos lo encubrirán y echarán a buena parte].

Azken erabilera hau maiztasun handikoa ez izan arren, Axularren testutik behintzat lekukotzen da. Testu modernoetan ez da batere erabilera arraroa, nahiz eta normalena ez izan. Hurrengo adibideetan ere kausazkoa ez-asertziozkoa eta edukizkoa da eta gaztelaniaz *como* erabiliko litzateke, ziur asko, itzulpen egoki batean. Adibideotan kausazko perpausak ematen duen informazioa edukiari dagokio eta aurreuposatzen da:

- (36) *-nez gero* ~ *gazt. como* (edukizkoa, ez-asertziozkoa)
- a. Lurra inkantean *denaz geroz*, Josetek edo beste normahik inkanta jotzeko eskubidea ahal du (Larzabal, *Paper mende*, 1964)
 - b. Hola balin bada, zu preso altxatzeko dretxorik ez dut... (*Boza ozenduz*) Bainen, espainol *zirenaz geroz*, egonen zira Espainian (Larzabal, *Mugari tiro*, 1959)
 - c. Merkea *zenez gero*, erosi egin nuen (EGLU VI, 167. orr.)
 - d. Baña *aizen ezkeroz burutik maingutu artaraño*, *non nai dek nerekin jokatu* (Iturrriaga, *Ipuinak*, 1842)
 - e. desengañaio arturik *zegoen ezkeroz eskatu zeban mesedez laga zegotela edaten baso bat ur* (Iztueta, *Gipuzkoako probintziaren kondaira*, 1847)
 - f. Baina Lotek hainbeste erregutu *zienez gero*, berarekin joan ziren etxera (*Eli-zen Arteko Biblia: Hasiera*, 19:3, 2008)
 - g. Eta puritanoek ez Oxforden, ez Cambridgen, ez Ingalaterreko elizaren mende zeuden beste eskoletan ikasi ezin *zutenez gero*, Charles Mortononen akademian egin zituen ikasketak, aitak predikari izan zedin nahi zuen eta (A. Ibarzabal, D. Defoe-ren *Robinson Crusoe*, «Liburuaren sarrera», 2012)

Gabriel Arestiren bertso ezagunean ere antzeko interpretazio bat dugu. Kausazko perpausak ematen duen informazioa nagusiaren edukiari dagokio, nahiz eta asertziozkoa ez izan:

- (37) Poeta *naizenez gero*, ez dut zerurik espero. (G. Aresti, *Harri eta herri*, 1964)
[*Como* soy poeta no espero cielo alguno]

Azkenik, hurrengo adibidean, kausazkoak balio epistemikoa du (hiztunak esaten duena esateko duen arrazoia ematen du) eta, beraz, gaztelaniaz *como* juntagailuarekin itzuliko litzateke hau ere, eta ez hain ondo *ya que* juntagailuaren bidez:

- (38) Jende txea etortzen asi *dan ezker*o jaien bat izango da (Labaien, *Euskal eguna*, 1930)

Bestalde, gaztelaniaz ez bezala, (27)ko II > III bilakaera ez da gertatu; *-nez gero* ez da erabiltzen asertziozko kausaletan. Adibidez, badirudi *-nez gero* ez litzatekeela norma-lean erabiliko (39)ko gaztelaniazko esaldia itzultzeko, mendeko perpausan ematen den informazioa berria baldin bada (asertziozkoa bada):

- (39) Decidieron posponer la reunión, {*pues / ya que / *como*} era muy tarde
'Bilera atzeratzea erabaki zuten, oso berandu {baitzen / zen eta / ?zenez gero}'
(informazio berria entzulearentzat)

Laburbiltzeko, gehienetan *-nez gero* formak kausazko pragmatikoetan erabiltzen da eta gazt. *ya que* menderagailuak dauzkan erabilera ez-asertziozko edo tematiko bereziak erakusten ditu (mintza-ekintzak etab. justifikatzeko). Hala ere, euskal lokailuak erabilera tematiko zabalago bat garatu du eta gaztelaniaren *como* lokailuaren esanahia ere har dezake; hau da edukizkoak eta tematikoak (ez-asertziozkoak) diren perpausetan ager daiteke. Aldiz, gaztelaniazko menderagailuak ez bezala, ez da hedatu asertziozko testuinguruetara.

Euskaltzaindiko gramatikak ere azpimarratzen du *-nez gero* atzizki multzoarekin eratutako perpausak «mintzagai izateko joera nabarmena dutela» (EGLU VI, 167. orr.); hau da tematikoak, ez-asertziozkoak dira gehienetan.

Eusk. *-nez gero* eta fr. *puisque* lokailuak antzekoagoak dira beren bilakaera diakronikoan, baina ez guztiz. Fr. *puisque* (27)ko II. pausuan geratu da (Zuffery, 2012). Euskal lokailuak, aldiz, esan berri dugunez, erabilera zabalagoa garatu du, baina beste norabide batetik: testuinguru edukizko eta ez-asertziozko neutroetarantz. Erabileraren aldetik, *-n(ez) gero* lokailuak antz handiagoa du ingl. *since* menderagailuarekin gazt. *ya que* menderagailuarekin baino.

Ia gaurko erabilera guztiak lehen testuetatik aurkitzen ditugu. Hala ere, erabilera edukizko-tematikoak eta epistemikoak maiztasun erlatiboki txikia dute eta berriagoak dirudite.

10. ONDORIOAK

Denbora adberbio eta juntagailuak kausazko lokailuen iturri emankorrak dira munduko hizkuntzetan. Hizkuntza erromanikoetan, adibidez, *post* eta *iam* denbora adberbioetatik datozenak ditugu (gazt. *pues*, fr. *puisque*, kat. *puix (que)*, it. *poiché*; gazt. *ya que*, kat. *ja que*, it. *giacché*); eta ingelesezko *since* lokailua beste adibide on bat da. Euskarazko *-nez gero* atzizki multzoak ere gramatikalizazio bide hori erakusten du.

Gramatikalizazio prozesu honetan kausazko esanahia inferentziaz sortzen da denborazko esanahitik. Lehen gertatzen dena geroago gertatzen denaren kausa bezala interpretatu daiteke, eta konbentzionalizazioaren bidez, interpretazio hori gramatikalizatu daiteke. Kausazko inferentzia 5. atalean definitzen den testuinguruan gertatzen da.

Gramatikalizaziogunearen ezaugarriengatik, lehen urrats batean «arrazoi honegatik» edo «hau kontuan izanik» kausazko esanahia izan dezakegu. Hau da, ez dago asertzio-rik, azalpena auresuposatzen den zerbait da. Esanahi hori lehen testuetatik gaurdaino aurkitzen dugu.

Kausazko perpaus mota hauek erabilera desberdinak izan ditzakete. Mintza-ekintzak (aginduak, galderak, harridura, etab.) justifikatzeko erabil daitezke, baina baita beste testuinguru batzuetan ere erabil daitezke, hala nola hiztunarentzat beharrezkoak, ezinezkoak, etab. diren goeren edo ekintzen motiboa emateko (ikus 9. atala).

Hortik aurrera bilakaera desberdinak aurkitzen ditugu hizkuntza desberdinetan.

Gaur egun euskaraz *-nez gero* lokailua ez-asertziozko kausal neutroetan erabil daiteke eta, beraz, fr. *comme* eta gazt. *como* lokailuen baliokidea izan daiteke. Beharbada bilakaera hau *-nez* moduzko lokailuaren garapenarekin lotu behar da (adib. *etorri behar duzunez ~ etorri behar duzunez gero*). Gaztelaniaz, aldiz, *pues* eta *ya que* lokailuak asertziozko testuinguruetarantz zabaldu ziren.

Antzekotasun handiagoa aurkitzen dugu ingelesezko *since* lokailuarekin (baina *since* askoz gehiago erabiltzen da). Ing. *since* bezala, *-nez gero* edukizko ez-asertziozkoetan erabil daiteke, nahiz eta erabilerarik normalena ez izan:

- (40) a. Apurtuta zegoenez *gero*, zaramara bota dut (Zubiri & Zubiri, 2012, 752. orr.)
 b. *Since* it was broken, I threw it in the trash
 c. *Como* estaba roto, lo tiré a la basura

Laburbiltzeko, hipotesiz denboratik kausara daraman bidea berdina da lehen urratsean hizkuntza guztietan. Hortik aurrera, aldiz, garapen desberdinak izan ditzakegu, eta garapena ez da guztiz berdina izan euskaraz eta alboko hizkuntzetan. Euskal lokailuak ez du egin jauzia asertziozko testuinguruetara, baina ez-asertziozkoetan orokortu da.

11. ERREFERENTZIAK

- Anscombe, J.-C. & Ducrot, O. (1983). *L'argumentation dans la langue*. Brusela: Mardaga.
 Artiagoitia, X. (2003). Adjunct subordination. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque* (762-823. orr.). Berlin: Mouton de Gruyter.
 Baños, J. M. (2014). *Las oraciones causales en latín: su evolución diacrónica*. Madrid: Escolar y Mayo.

- Diessel, H. (2001). The ordering distribution of main and adverbial clauses: a typological study. *Language*, 77, 433-455.
- Ducrot, O. (1983). *Puisque*: Essai de description polyphonique. *Revue Romane*, 24, 166-185.
- EGLU VI = Euskaltzaindia, 2005.
- Euskaltzaindia. (2005). *Euskal gramatika: lehen urratsak-VI* (Mendeko perpausak-2). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (2017). *Orotariko Euskal hiztegia/Diccionario general vasco*. Hemen dik hartua: www.euskaltzaindia.eus
- Geis, M. & Zwicky, A. (1971). On invited inferences. *Linguistic Inquiry*, 2, 561-566.
- Goethals, P. (2002). *Las conjunciones causales explicativas en castellano. Un estudio semiótico-lingüístico*. Lovaina: Peeters.
- Goethals, P. (2010). A multi-layered approach to speech events. The case of Spanish justificational conjunctions. *Journal of Pragmatics*, 42, 2204-2218.
- Gutiérrez Ordóñez, S. (2000). Causales. *Boletín de la Real Academia Española*, 80, 47-159.
- Herman, J. (1963). *La formation du système roman de conjonctions de subordination*. Berlin: Akademie Verlag.
- Herrero Ruiz de Loizaga, F. J. (2005). *Sintaxis histórica de la oración compuesta en el español*. Madrid: Gredos.
- Herrero Ruiz de Loizaga, F. J. (2006). La locución conjuntiva *ya que*: cronología y usos. In J. J. de Bustos Tovar & J. L. Girón Alconchel (arg.), *Actas del VI Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española* (825-840. orr.). Madrid: Arco Libros.
- Kortmann, B. (1997). *A typology and history of adverbial subordinators based on European languages*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Krajewska, D. (2013). *The diachrony of resultative constructions in Basque* (master tesis). UPV/EHU.
- Levinson, S. (1995). Three levels of meaning. In F. R. Palmer (arg.), *Grammar and meaning: Essays in honor of Sir John Lyons* (90-115. orr.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Meyer-Lübke, W. (1899). *Grammaire des langues romanes*, III. Paris: H. Welter.
- Mounole, C. (2015). *Lazarragaren gramatika. Eskuizkribua*. UPV/EHuko eskuizkribua. OEH = Euskaltzaindia, 2017.
- Pérez Saldanya, M. (2014). Oraciones causales. In C. Company Company (zuz.), *Sintaxis histórica de la lengua española tercera parte: Preposiciones, adverbios y con-junciones. Relaciones Interoracionales*, Vol. 3 (3447-3610. orr.). Mexiko: Fondo de Cultura Económica / Universidad Nacional Autónoma de México.
- Pérez Saldanya, M. & Hualde, J. I. (2017). Causal conjunctions of temporal origin in Spanish and Catalan: Diachronic and contrastive analysis. *Studies in Hispanic and Lusophone Linguistics*, 10, 319-348.
- Santos Río, L. (1982). Reflexiones sobre la expresión de la causa en español. *Studia Philologica Salmanticensia*, 6, 231-277.
- Sarasola, I., Salaburu, P., Landa, J. & Zabaleta, J. (2015). *Ereduzko prosa gaur*. Sarean eskuragarri: <<http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>>

- Thompson, S. A. & Longrace, R. E. (1983). Adverbial Clauses. In T. Shopen (arg.), *Language typology and syntactic description II. Complex constructions* (171-234. orr.). Cambridge: Cambridge University Press.
- Traugott, E. C. & Dasher, R. B. (2002). *Regularity in semantic change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Traugott, E. C. & König, E. (1991). The semantics-pragmatics of grammaticalization revisited. In E. C. Traugott & B. Heine (arg.), *Approaches to grammaticalization*, Vol. I (189-218. orr.). Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins.
- Villasante, L. (1982). Las oraciones causales en Axular (III): Oraciones causales fronterizas. *FLV*, 39, 9-20.
- Villasante, L. (1986). *La oración causal en vasco*. Oñati: Editorial Franciscana Aránzazu.
- Zubiri, I. & Zubiri, E. (2012). *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: IkasBook.
- Zufferey, S. (2012). ‘Car, parce que, puisque’ revisited: Three empirical studies on French causal connectives. *Journal of Pragmatics*, 44, 138-153.